

PROBA ESPEZIFIKOA

2011ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

HISTORIA DEL ARTE

Probaren iraupena: ordubete

Probak bi atal ditu:

1. atala: Bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 5 puntu balio du 10etik.



2. atala: Bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 5 puntu balio du 10etik.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU EZAZU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu ezazu obra, eta, horretarako, adieraz ezazu egilea, estiloa eta noizkoa den gutxi gorabehera.
- Egin ezazu obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Aztertu ezazu labur zer testuinguru historiko eta artistikotan egin zen.

A)





B)



2. atala:

GARATU EZAZU BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

A.- "ESKULTURA ERRENAZENTISTA ITALIARRA. MICHELANGELO"

- Errenazimentuko eskultura italiarraren ezaugarri orokorrak.
- Michelangelo eta haren lanak.

B.- "MODERNISMOA: GAUDÍ".

- Arkitektura modernistaren ezaugarri orokorrak.
- Europako korrante modernistak.
- Espainiako modernismoa: Antoni Gaudí.



**EBAZPENA: ARTEAREN HISTORIA
(2011ko maiatza)**

Probaren iraupena: ordubete

Probak bi atal ditu:

1. atala: Bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 5 puntu balio du 10etik.



2. atala: Bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 5 puntu balio du 10etik.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU EZAZU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu ezazu obra, eta, horretarako, adieraz ezazu egilea, estiloa eta noizkoa den gutxi gorabehera.
- Egin ezazu obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Azter ezazu labur zer testuinguru historiko eta artistikotan egin zen.

A)





ERANTZUNA

- **Sailkatu ezazu obra, eta, horretarako, adieraz ezazu egilea, estiloa eta noizkoa den gutxi gorabehera.**

Partenoi izeneko obra arkitektonikoari dagokio irudia. K.a. 447 eta 437 artean eraiki zuten Iktinosek eta Kalikratesek. 69,50 m-ko luzera eta 31 m-ko zabalera du. Marmola baino ez zen erabili eraikitzeko material gisa. Atenasko Akropolian dago. Arkitektura grekoaren garai klasikokoa da.

- **Egin ezazu obraren azterketa formal eta ikonografikoa.**

Partenoia Atena Partenosi eskainitako tenplua da, Periklesen garaietan eraikia, K.a. 447 eta 437 bitartean. Fidiasek diseinatu zuen, eta Iktinos eta Kalikrates arkitektoen zuzendari izan zen. Periptero doriko bat du (kolomak cellaren inguruan), anfiptostiloa (bi atarirekin) eta oktastiloa de (8 koloma ditu fatxadetan), eta 17 albo-koloma ditu. Penteliko mendiko marmolarekin eraikia eta polikromatua da. Cellara joateko, pronaosetik (ataritik) zuen sarbidea. Bi zutabe-lerrok hiru nabetan banatzen zuen cella, eta Atenaren estatua kriselefantinoa (urre eta bolizkoa), Fidiasek landua, zegoen zutabe-lerroen artean. Partenoi izeneko aretoa cellaren atzean dago, eta emakume apaizentzat zen soilik (*parthénos* terminoak dontzeila, birjina, esan nahi du, eta *parthenón* terminoak, berriz, dontzeilen aretoa).

Eraikin honetan, estilo dorikoak perfekzioaren maila gorena lortzen du. Proporzioen oreka eta harmonia, ordena, zuzentasun optikoa eta eraikuntza geometriko arrazionala dira haren parametroak. Kanpoko arkitektura da, batez ere; ikusteko egina, efektu optiko eta geometrikoek erakusten dutenez. Partenoi osoa zorrotasun xeheenarekin kalkulatu dago, ikusleak perfekzio liluragarriaren efektua senti dezan. Monotonia eta astuntasuna saihesteko, zutabeen arteko distantziak desberdinak dira, eta fatxadaren erdirantz eta barrurantz okertuta daude apur bat, erabat bertikala den kolomadiak eragiten duen dibergentzia-efektua arintzeko. Koloma guztiek dute entasia edo zabalgunea erdigunean. Angeluetako zutabeak zabalagoak dira erdian, harea-erloju baten gisa erdian estugunea dutelako itxura ez hartzeko: argi gehiago xurgatzen dutenez, txikiagoak emango lukete besteek bezalako neurriak izanez gero. Estilobatoa ez da uniforme; angeluak erdigunea baino beheago daude; gauza bera gertatzen da arkitrabearekin ere. Monumentuaren egonkortasuna handitzeko, euri-ura errazago isurtzeko eta distortsio optikoak zuzentzeko balio zuen kurbadura horrek. Frontoiko lerro zeharra (hots, teilatuaren inklinazioa) tenpluaren sakontasunarekin erlazionatuta dago; izan ere, lerro hori luzatuz gero, alboko hormaren behealdeko atzeko angelua lortzen da.



Dekorazio eskultorikoak, Fidiasen eta kolaboratzaile askoren ardurapean eginak, barne hartzen ditu frisoa, metopak eta frontoiak; Atenasko historia mitologikoaren une garrantzitsuak jasotzen zituzten. Cellako frisoan Panateneetako prozesioa irudikatuta dago; funtsean, hau ageri da: dontzeilek berek ehundutako eta brodatutako peplo aberats bat ematen diote Atena jainkosari, hiritar guztiek lagunduta. Metopen dekorazio eskultorikoan, atenastarren zenbait borrokaldi ageri dira: zentauroekikoak (zentaumakia) hegoaldeko fatxadan; amazonekikoak (amazonomakia) mendebaldekoan; erraldoi edo titanekikoak (gigantomakia) ekialdekoan, eta troiarrekikoak iparraldekoan. Frontoiek irudi hauek dituzte: Atenaren jaiotza eta Atika eskuratzeko Poseidonen aurka egin zuen borroka.

Handia izan arren (areto nagusiak 13 metro baino gehiagoko altuera du), ez da eraikuntza kolosal bat, egiptoarrena bezalakoa. Ematen du, beraz, gizakiek eta gizakientzat eraikia izan zela.

- Arkitektura grekoaren etapak.

Garai arkaikoa. Greziarrak adobeak eta egurra erabiltzen hasi ziren eraikinetarako, baina, K.a. VII. mendetik aurrera, harria eta marmola hasi ziren nagusitzen. K.a. VI. mendean, estilo dorikoko eraikin handiak egin zituzten, koloma zabalekin eta oso abako irtenekin, garaiaren adierazgarri. Heraren tenplua eraiki zen Olinpian (K.a. 600), eta Apoloren tenplua Korinton (K.a. 540). Halaber, badira estilo jonikoan eraiki zirenak, hala nola Artemisaren tenplua Efeson (K.a. 550).

Garai klasikoa. Arkitekturak heldutasun-maila handia erdietsi zuen. Klasizismoa K.a. V. mendean bigarren erdian garatu zen bete-betean, Periklesen agintaldian. Hark akropolia (Atenasko tenpluetako gotorleku edo esparrua) eraikitzeke agindu zion Fidiasi. Harresi batez inguratua zegoen, eta sarrera monumental bat zuen: Propileoak. Partenoira, Erekteioira eta Atena Nike-ren tenplura joateko sarbidea zen.

Eraikin garrantzitsuena Partenoia da (K.a. 447-437), estilo dorikokoa. Atena Nikeren tenplua (K.a. 427-424) eraikin txiki bat da, estilo jonikokoa. Akropoliaren iparraldean Erekteioia dago (K.a. 421-405), estilo jonikokoa hura ere. Garai hartakoa da, halaber, Zeusen tenplua, Olinpian (K.a. 470-460).

Garai helenistikoa. Garai hartan, hiri asko sortu ziren, eraikin publiko ugariak —hala nola gimnasioak, antzokiak, aldareak eta abar—, kolosalak izateko joera zutenak. Estilo erabiliena korintoarra da; naturalismo handiko akanto-orriak ditu. Garai hartako eraikinak dira, besteak beste, Atenasko Zeus Olinpiarraren tenplua (K.a. 174-131) eta Pergamoko Zeusen aldarea (K.a. 197-159).



B)



ERANTZUNA

- Egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia.

Velázquezen *Meninak* artelana da irudikoa. Oihal gaineko olio-pintura da, tamaina handikoa (3,18 m × 2,76 m), eta 1656an egina. Espainiako Urrezko Mendearen pintura barrokoari dagokio. Madrilgo Prado museoan dago.

- Egin ezazu obraren azterketa formal eta ikonografikoa.

Gaia. *Meninak* edo *Filipe IV.aren familia* da, zalantzarik gabe, pinturan sekula izan den maisulan handienetako bat. Erretratu-eszena tipiko bat da. Austriako etxearen antzinako alkazarrean pintoreak zuen estudioa ageri da, Madrilen, Margarita infanta bisita egin zionean gortesau eta zerbitzari batzuekin batera. Errege-erreginak hondoko ispiluan ageri dira islatuta; historialari batzuek diote pintorearentzat paratuta zeudela. Beste batzuek, berriz, horren kontrakoa diote;



hots, errege-erreginak sartu zirela Velázquez infantaren erretratua egiten ari zen tailerrean, margolaneko pertsonaia guztiak haiei begira baitaude.

Konposizioa. Zenbait plano bereizten dira. Lehenbiziko planoan, erdialdean, Margarita Maria, Filipe IV.aren bost urteko alaba, ageri da bere meninez lagunduta. *Menina* hitz portugesa da, infantaren laguntzaileak izendatzeko erabiltzen dena; infantaren zerbitzura dauden ohorezko dontzeilak: haren eskuinean, Maria Agustina de Sarmiento, eta ezkerrean, Isabel de Velasco. Bestalde, koadroaren eskuinean, Mari Bárbola eta Nicolás Pertusato nanoak ageri dira, azken hori zoruan etzanda dagoen artzaburuekin jolasean. Bigarren planoan, ezkerrean, ezkutatu samar, Diego Velázquez bera ageri da, paleta eta pintzela eskuetan dituela margolan handi baten aurrean; hala, margolan horrek espazioa itxi egiten du alde horretan, eta jakin-mina pizten dio ikusleari bere misterioarekin. Isabel de Velascoren atzean, Marcela de Ulloa andrea, alarguna, ageri da Diego Ruiz de Azcona jaun damazainarekin hizketan. Hirugarren planoan, atzean, Jose Nieto Velázquez jauna, erreginaren txanbelana, ageri da; horman dagoen ispiluan Filipe IV.aren eta Mariana Austriakoaren bustoak ageri dira islatuta, eta bi mitologia-margolan handi daude horman jarrita.

Dena dela, Velázquezek perfektuki definitutako barne-espazioa irudikatu du; espazioa handiagotu egiten du ispilu-jokoaren baliabide barrokoa erabiliz, hala nahasi egiten baititu ikusten dena eta ikusten ez dena, eta sakontasuna ematen dio, urruntzen diren neurrian lausotzen eta txikiagotzen diren pertsonaiek eta objektuek bezala.

Argia eta kolorea. Margolanaren benetako protagonista argia da. Aretoa ilunantzean dago, eta argia hiru aldetatik sartzen da zeharka: lehenbiziko eta azkeneko leiho zabaletatik, eskuinean, eta hondoko atetik. Atea irekitzean, argi naturalaren sarbide-puntu bat ikusten da, argilun oso nabarmenak eragiten dituena. Argi horri eskuineko leihoetatik datorrena elkartzen zaio; pertsonaiek eta objektuek argitzeaz gainera, haien arteko airea ere argitzen du (*airetiko perspektiba*), eta horrek ere sakonera ematen dio koadroari. Kolore sorta hotz eta xaloa darabil. Airetiko perspektibak eta argi-itzaletan jokoek ikusleari sinetsarazten diote benetako espazio bat, pintatuta ez dagoena, ikusten dela. Kolore marroia, beltza eta grisa dira nagusi, baina badira gorriaren arrastoak ere.

Teknika. Velázquezek bere ohiko teknika erabiltzen du, zuzenean pintatzea; ez du zirriborrorik, ez aurretiazko marrazkirik egiten, segidako pintura-geruzak erabiliz pintatzen du. Koloreak pintzelkada azkar eta askeen bidez aplikatzen ditu, eta, hala, naturaltasun eta freskotasun handiagoa eta kolore gehiago lortzen ditu.

Estiloa. Koadro honetan barrokoaren berezko ezaugarri guztiak ikus daitezke: lerro diagonalak eta kurbatuak nagusi diren konposizioa da, koloretsua, koadroari batasuna emateko kolore nagusi bat duena, eta argi-itzaletan kontrastea duena;



garrantzi gutxi ematen zaio lerroari; naturalismoa eta xehetasunetarako zaletasuna ageri du; esanahi nahasi, argirik gabea, eta abar.

Esanahia. Asko teorizatu da Velázquezek koadro hau pintatzean izan zuen asmoari buruz. Teoria batzuek pertsonaien izaera sinbolikoa aipatzen dute. Adibidez, neska nanoak txanpon bezetako poltsa bat du eskuan, eta horrek diru-gosea adierazten du. Gorriz pintatutako mutikoak jo egiten du txakurra, fideltasunaren irudia; horrek gaizkia irudikatuko luke. Hala ere, teoriko askok uste dute Velázquezek artistaren balio soziala aldarrikatu besterik ez duela egiten. XVII. mendean, Espainian, pintura ogibidetzat jotzen da oraindik; nobleek egin ezin duten zerbait da, beraz. Velázquezek errege pinturazale amorratu baten, Filipe IV.aren, eta pintorearen beraren arteko harreman bikainak erakusten dituen dokumentua egin nahi du, eta, hala, pinturarentzat goragoko posizio bat aldarrikatu. Pinturaren nobleziaren defentsa egiten du, ez baita kopia hutsa, baizik eta jakintzaren benetako bidea eta ez eskulana. Pintoreak pintzela eskuan duela irudikatu du bere burua, pentsakor, eta pertsonalki berretsi du bere noblezia. Erregeak Santiagoren gurutzea pintarazi zion, eta, hala, hain modu sotilean, artearen eta Velázquezen noblezia aitortzen du.

- Testuinguru historiko-artistikoa.

Pintorea eta garaia. XVII. mendean Espainian krisi ekonomiko eta politiko larria izan arren, garai bikaina izan zen hura kulturaren eta artearen ikuspegitik ("Urrezko mendea"). Pintoreen bezeroak elizak eta komentuak ziren, aberatsak eta boteretsuak baitziren; nobleek eta Gorteak nahiago zituzten atzerriko artistak; burgesiarik ia ez zegoen, nahiz eta Sevillan baziren Flandesko eta Italiako merkataria aberatsak. Lan gehienak pintura erlijioso kontrarreformistarekin lotuta zeuden, eta ia ez zen sortzen batere pintura mitologiko edo historikorik, eta paisaiak ere oso gutxi irudikatzen ziren. Asko landu zen natura hila eta erretratua, eta lan bikainak egin zituen Velázquezek genero horietan.

Diego Velázquez (1599-1660) Espainiako barrokoaren pintore onena da, eta nabarmena da arte unibertsalean. Sevillan jaio zen, eta hamar urterekin aprendiz gisa hasi zen Pachecoren tailerrean. Sevillako lehenbiziko etapa, tenebrista izan zuen; errealismo handiko natura hilak egin zituen (*Atsoa arrautzak frijitzen, Urketaria*). Artean, ez zitzaion garrantzi handirik ematen genero horri, eta Velázquezek duintasuna eman zion.

1623an Madrilera joan zen bizi izatera, eta Filipe IV.aren ganbera-pintore izendatu zuten. Bi bidaiak egin zituen Italiara. Erregearen eta haren familiaren erretratuak pintatu zituen batez ere (*Filipe IV.a, Olivares konde-dukea, Baltasar Karlos printzea*), zaldiz edo ehizan, bufoien erretratuak ahaztu gabe (*Vallecasko haurra*). Koadro mitologikoak ere egin zituen (*Mozkorrak, Vulkanoren sutegia, Ispiluko Venus, Iruleak*), eta historikoak (*Bredaren errenditza*); bai eta paisaiak ere (*Villa Medici*), eta horrek nobedadea eragin zuen Espainiako panoraman.



Velázquezen maisulana *Meninak* da, Filipe IV.aren familiaren erretratu kolektiboa, *pinturaren teologiatzat* hartu izan dena.

Koadro guztietan nabarmen ageri da airetiko perspektiba maisutasunez darabilela, argia, marrazkia eta kolore distiratsuak aplikatzen dituela pintzelkada askeak, ia inpresionistak, erabiliz.

2. atala:

GARATU EZAZU BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

A.- "XVI. MENDEKO ESKULTURA ERRENAZENTISTA ITALIARRA. MICHELANGELO".

- *Cinquecentoko* eskultura italiarraren ezaugarri orokorrak.
- Michelangelo eta haren lanak.

ERANTZUNA

- ***Cinquecentoko* eskultura italiarraren ezaugarri orokorrak.**

XVI. mendeko (*Cinquecentoko*) eskultura italiarrak baditu XV. mendeko (*Quattrocentoko*) eskulturaren berezko ezaugarriak: arte klasikoari eusten zaio, edertasuna bilatzen da, giza irudian eta anatomian arreta jartzen da, eta lan perfektuak lortu nahi izaten dira ikuspegi formaletik. Baina, gainera, balio berriak bilatzen ditu batez ere: lanen handitasuna eta monumentaltasuna. Izan ere, garai hartan, arkeologia-lan eskerga egin zen, antzinateko artelan asko eta asko argitara atera zituen; artelan horiek eragin handia izan zuten zenbait gaitan, hala nola biluztasunean, irudikapen heroikoetan eta baita adierazkortasunean ere.

- **Michelangelo eta haren lanak.**

Michelangelo Buonarrotti (1475-1564) XVI. mendeko eskultorerik garrantzitsuena da. Material guztiekin, batez ere marmolarekin eta brontzearekin, maisutasuna erakutsi zuen; bera da *Cinquecentoko* eskultore gailena.

Errenazimentuko jenioaren irudia da, eta maisutasunez aritu zen arlo guztietan (arkitektoa, pintorea, poeta); baina bere burua eskultoretzat du. Errenazimentuak berreskuratutako ideal klasikoak hobekien jaso zituen gizona izan zen. Ihes egiten zuen idealizazio absolututik, eta kanpo-itxuratik gehien ezkututzen den edertasuna bilatzen zuen. Nabarmen ageri da bere ibilbide osoan gizakiaren



irudia berreskuratzeko ahalegina. Ikuskera neoplatonikoa, Errenazimentuan berpiztua, oso nabarmena da haren lan guztietan: azken ideia, gizakiaren barnealdea, da funtsezkoa, eta ez hura inguratzen duena. Michelangeloren bizitza osoa ahalegin titaniko bat izan zen forma askatzeko hura hertsatzen duen materiati.

Zenbait etapa artistiko izan zituen:

- a) Gaztaroa (1491-1505), Florentzian, oso klasizista; edertasun ideala bilatzen du, adibidez *Vatikanoko Pietatea*, obra erabat perfektua. Garai hartako obra garrantzitsuena *David* da (gaur egun, Florentzian dago); edertasun idealizatua adierazteaz gainera, Michelangeloren ondorengo obretako gaitasun adierazkorra nabarmentzen hasiko da.
- b) Helduaroa (1505-1534), Erroman; joera manieristak ageri dira, eta pixkanaka lausotzen hasten da klasizismoaren ideal estetikoa; adibidez, *Moises* eta *Esklaboak*. *Moises* obra da Michelangeloren indar adierazkorraren edo *terribilitá* delakoaren lan adierazgarriena. *Esklaboak* artelanarekin ederki asko ikus daiteke zer prozesu erabiltzen zuen marmolezko bloke primarioetatik abiatuak eskulturak egiteko.
- c) Zahartzaroa (1548-1564), haustura-garaia da, eta perfekzio formalaren orde adierazkortasuna erabiltzen du; adibidez, *Rondanini Pietatea*. Eskultura hori zirriborratua baino ez dago, eta Michelangelok azken urteetan izan zuen krisi sakona erakusten du.

B.- "MODERNISMOA: GAUDÍ".

- Arkitektura modernistaren ezaugarri orokorrak.
- Europako korrante modernistak.
- Espainiako modernismoa: Antoni Gaudí.

ERANTZUNA

- Arkitektura modernistaren ezaugarri orokorrak.

1. Modernismoa 1890-1910 bitartean garatutako mugimendu artistiko zabala izan zen. Zenbait izen izan zituen herrialdearen arabera: *art nouveau* Frantzia, *modern style* Ingalaterran, *Jugendstil* Alemanian, *Sezessionstil* Austrian, eta *stile liberty* Italian.



2. Burgesia aberastuak iraultza industrialaren eraginetako batzuen kontra izan zuen erantzuna da. Gizarteko talde aberats horrek iraganarekin lotura zuen artea nahi zuen, dotoreagoa eta kalitate handiagokoa, une hartan garatzen hasia zegoen burdinaren eta kristalaren arkitekturaren aldean. Arkitektura modernistak gotikoa hartu zuen eredu, izaera industrial zuten eraikuntza eta objektu itsusietatik ihes egiteko.

3. Oro har, naturaren formak antzeratzen saiatu ziren. Horrenbestez, mota guztietako loreak, algak, burruntzia, hegaztiak eta abar irudikatzen zituen dekorazio organiko batez bete zituzten eraikinetako hormak, ateak, barandak, sabaiak...

4. Modernismoak artea eta eguneroko bizitza elkartu nahi ditu. Hala, artistek ez dituzte eraikinak soilik sortzen; altzariak, mota askotako objektuak edota jantziak ere diseinatu zituzten. Halaber, egitura-elementuak berak apaingarri bihurtzea dute helburu. Horregatik, burdinazko, zementuzko edo harrizko kolomak eta habeak begi-bistan uzten hasten dira, eta dekorazioan integratzen.

5. Mota guztietako materialak lantzen dira, baina artisau eran, burgesiak — mugimendu honen bezero nagusiak— lortu nahi duen gustu ona, dotoretasuna eta fintasuna bilatze horren ondorioz.

6. Arkitekto modernistek izaki bizitzat hartzen dute eraikina, hazteko eta garatzeko gai den izakitzat. Ikuskera organiko horren bidez, barne-espazioak integratzen saiatzen dira (korridoreak kenduz, adibidez), eta jarraitutasun-irudipena sortzen; hala, asimetria ageri ohi da ateetan, leihoetan eta mota guztietako xehetasunetan.

Modernismo uhindua eta Modernismo geometrikoa.

Europan, bi joera modernista bereizten dira: *Modernismo uhindua* eta *modernismo geometrikoa*. Lehenbizikoa, Espainian, Belgikan eta Frantzian garatu zen, eta lerro kurbatua da nagusi; bigarrena, Austrian eta Britainia Handian garatu zen, eta lerro zuzenak eta plano elkarzutak dira ezaugarri nagusiak.

Modernismo uhindua. Belgika jotzen da modernismoaren sorlekutzat. Han, Victor Horta aritu zen, eta garrantzi handia eman zion burdinari eraikuntza- eta dekorazio-elementu gisa; kaiola-egiturako eraikinen proiektuak ere egin zituen. Besteak beste, Bruselako *Tassel etxea* aipatu beharra dago, eraikin modernistetatik adierazgarriena. Frantzian, Héctor Guimard izan zen arkitekto eta dekoratzaile garrantzitsuena, Parisko metroko geltokien sarbideak egin zituena; haietan, ezin hobeto konbinatzen dira burdina eta kristala, eta landare-motiboak dira nagusi.



Modernismo geometrikoa. Korrante honek lerro soilago eta zorrotzagoko arkitektura landu zuen, lerro zuzenean eta konposizio planimetrikoan oinarritua. Britainia Handian, *Rennie Mackintosh* eskoziar arkitektoa izan zen nagusia. Estilo ortogonalaren ezarri zuen: lerro zuzenak, plano oso definituak, apaingarrietako nabarmenkeriak baztertzea, eta barrualde findu eta exotikoak. Haren obrarik garrantzitsuena *Glasgoweko arte-eskola* da.

Britainia Handiko arkitektura geometrikoak eragin handia izan zuen, halaber, Austriako arkitekto talde batean; haien obra, azkenean, Alemaniako arkitektura arrazionalistaren sorburu izan zen. Egile garrantzitsuena *Otto Wagner* izan zen; argi eta garbi adierazi zuen burdinaran eta kristalean oinarritutako urbanismoan eta eraikinetan interesa zuela. Haren lan garrantzitsuena *Vienako aurrezki-kutxa postalaren* eraikina da; haren ezaugarri nagusiak dira materialen erabilera xaloa, lerro horizontalaren nagusitasuna, eta funtzionalitate handia.

- Espainiako Modernismoa: Antoni Gaudí.

Katalunia izan zen Espainiako modernismoaren gune garrantzitsuena. Kataluniako burgesiak —dinamikoa, jantzia eta nazionalista, eta merkataritzaren eta industriaren bidez aberastua— modernismoa artearen adierazpen berri gisa aldeztu zuen Bartzelonako zabalgunean eraikitako eraikinetarako, zeinak garapenaren esanahia irudikatzen baitute. *Renaixença* izeneko mugimenduak Kataluniako kultura berpiztu nahi zuen, eta, bereziki, artearen eta arkitekturaren eremuan garatu zen. Kataluniako garai gorenak gogorarazi nahi zituen, eta, hala, elementu historizistak sartu zituen, batez ere gotikoari lotuak.

Garai hartako arkitekturaren eredia Antoni Gaudí izan zen (1852-1926). Reusen jaio zen (Tarragona). Bartzelonako Arkitekturako Goi Eskolan egin zituen ikasketak. Haren obra garrantzitsuenetako bat Bartzelonako *Güell parkea* da (1900-1914), irudimen handikoa eta inguruko topografia malkartsuari egokitua. *Astorgako apezpiku-jauregia* (1887-1993) edo Leongo *Botines etxean*, Gaudí Erdi Aroa eta, zehazkiago, gotikoa, izan zuen inspirazio-iturri, dorre altuak, pinakulu apainduak eta leiho luzangak erabili baitzituen.

Bartzelonako zabalgunean, Gaudí *Batlló etxea* egin zuen (1904-1906), horma uhinduak eta hezur-formako kolomak dituen, bai eta *Milà etxea* ere (1906-1910) —*La Pedrera* deitzen diote—. Baina Gaudíren funtsezko obra, non ikuskera espazial berriak irudikatu nahi izan baitzituen, *Familia Santua* da, amaitu gabe dagoen eliza (1883an hasia). Eraikin hori da, agian, Gaudíren bilakaera pertsonala eta haren ezaugarrien bilakaera hobekien laburbiltzen dituen. Hiru fatxada, kripta bat eta estilo gotikoko nabeak dituen tenplu erraldoi bat eraikitzeke plana egin zuen, baina Natibitatearen fatxada amaitu besterik ezin izan zuen egin. Fatxada hori era oparo eta liluragarrian dekoratutako hiru atari zabal eta kutsu ia surrealistikotan bermatuta altxatzen da.



Bartzelonan *Lluís Domènech i Montaner* (1850-1923) ere aritu zen; besteak beste, *Palau de la Música* egin zuen, 1905 eta 1908 bitartean, burdin egitura arrazional batetik abiatuta. Eraikin horretako dekorazio oparo eta joria aipatu beharra dago, dotorezia handia ematen baitio.

Oharrak:

Hemen ematen diren erantzunak orientatzeko bakarrik dira. Galdera bakoitza garatzeko luzerari eta sakontasunari dagokienez, osotasunari eman behar zaio garrantzia; alegia, gehiago hartu behar da kontuan erantzunetan alderdi guztiak agertzea, alderdiren bat sakon garatu izana baino.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10
2	1, 2, 3, 4, 6, 7